

Aukeratu udalekua eta txanda:

EGITASMOA		TXANDA		
INGELES UDALEKUAK	BERMEO	1	2	
	DONOSTIA	1	2	
	SOPELA	1		
EUSKARA MUGARA		1	2	3
SURF UDALEKUAK		1	2	3
MENDIA ETA PILOTA UDALEKUAK		1		
ITSASOA ETA KULTURA UDALEKUAK		1		
GAZTE EGONALDIAK		1	2	3

Izen-abizenak:		Jaioteguna:	
Helbidea:		Zenbakia:	Solairua:
Posta Kodea:	Herria:	Probintzia:	
Guraso/tutoreak:			
Izena:	Abizena:	Harremanetarako telefonoa:	
		NAN:	
Izena:	Abizena:	Harremanetarako telefonoa:	
		NAN:	
E-maila(k):			
IKASTOLA:		MAILA:	
Egon zara aurretiaz gure udalekuetan? _____ Non?			Urtea:
Udalekuetara lagunekin joan nahi baduzu, idatzi euren izen-abizenak:			
Baduzu gaixotasun,alergia edo premia bereziren bat? BAI EZ			
<ul style="list-style-type: none"> Baietza den kasuetan, gogoratu matrikulazio fitxa honekin batera derrigorra izango dela mediku edo guraso/tutoreek sinatutako informea edo azalpen zehatza, posta elektronikoko edo normalez gure bulegoetara bidaltzea. 			
Zein?			

IZEN-EMATEA:

Ordainketa aldi bakarrean egin behar da:

- **Ingeles udalekuak, Surf udalekua, Gazte Egonaldiak, Mendia eta Pilota udalekuak, Itsasoa eta Kultura udalekuak eta Euskara Mugara udalekuetan** izena emateko: **maiatzaren 8a** baino lehenago egin behar da.

Fitxa honekin batera, ordainketaren agiria eta argazki bat bidali behar dizkiguzue Ikastolen Elkartera. Ordainketa agirian **haurraren izen-abizenak eta udalekuaren izena agertu beharko dira** eta bertan agertzen den data zuen inskripzio data izango da. Eskaera kopurua gehiegizkoa bada, **onarpenak ordainketa dataren arabera egingo dira, beti ere ikastola federatuetao ikasleek beste guztiekiko preferentzia izango dutelarik apirilaren 5a arte; data honetatik aurrera izen ematea guztiontzat zabalduko da.** Udalekuetara joateko tokirik gabe geldituz gero, ordaindutakoa itzuli egingo zaizue.

Haurrak edozein gaixotasun edo alergia izanez gero, honi buruzko informazio zehatz guztia ere helarazi egin beharko diguzue. Hezitzaileentzat baliagarria izan daitekeen edozein informazio gehigarri ere ematea eskertuko genizueke.

Udalekuen inguruko informazio guztia (matrikulazio fitxa, udalekuen datak, ezaugarriak...) www.aisialdia.eus helbidean duzue.

Kontu korrante zenbakiak:

KUTXABANK	IBAN:ES35	2095	0114	61	3830351430	BIC:BASKES2BXXX
EUSKADIKO KUTXA	IBAN:ES49	3035	0122	88	1220012930	BIC:CLPEES2MXXX

Gogoratu: ordainagirian haur/gaztearen izen-abizenak eta aukeratutako udalekua derrigorrez adierazi behar dira.

IRIZPIDE OROKORRAK:

Haurrak/ Gazteak **EUSKARA MENPERATZEA DERRIGORREZKOA DA.**

Udalekuko taldeak antolatzerakoan **kontutan hartuko dira adierazitako lagun taldeak**, baina ikasleen taldekatzea eta toki egokitzea Ikastolen Elkartearen esku dago.

Guraso edo tutore legalen ardura izango da haurra/gaztea 1. egunean udalekuko egoitzan uztea, baita azken egunean jasotzea ere.

Udalekuan zehar haur/gazte eta gurasoek eskutitz bidez komunikatzeko aukera izango dute, baina guztiz **debehatuta egongo dira bisitak**, ez bada Ikastolen Elkartearekin aurretiaz adostutako arrazoi nagusi bat dela medio. Era berean, ordaindutako prezioaren barne daude udalekuetan zehar sortutako gastu guztiak. Haurrek/Gazteek behar duten guztia izango dute udalekuek iraungo duten egunetan, beraz guztiz **debehatuta egongo da haurrak/gazteak janari edo edozein motatako materialekin bidaltzea.**

Haurrek/gazteek udalekura eraman dezaketen **diru kopurua mugatua** izango da, 15 € hain zuzen ere (udalekuaren arabera). Begiraleek kudeatuko dute.

Haurrak/gazteak tratamendu mediku edo alergiaren bat baldin badu, gurasoek aurretiaz puntu honi buruzko **informazio guztia helarazi** beharko dute Ikastolen Elkartera. Era berean, **medikamentuak eta hauei buruzko informazio zehatza udalekura eraman** beharko ditu haurrak.

Material apurketak: udalekuetan dagoen materialaren ardura Ikastolen Elkartearena da. Apurketen kasuak aztertuko dira eta materiala haurren/gazteren batek apurtu badu, honen ordainketa guraso edo tutore legalaren ardura izango da. **Ikaslea** izango da udalekuetara **eramaten dituen gauza guztien arduradun bakarra** eta ez Ikastolen Elkartea.

Ikastolen Elkarreak ez dauka erantzukizunik parte hartzaileek udalekuetan egindako argazki eta grabazioez eta egin dezaketen erabilpenaz.

Eskutatuko udalekuaren aukeraketari lehentasuna emango diogun arren, adin tartea kontuan hartuta osatuko dira taldeak.

BAJA IRIZPIDEAK:

Ikasle batek **baja emanaz gero**, matrikulazio epearen barnean **kasu guztietan %10eko erretentzioa izango du.**

Matrikulazio epetik kanpo, kuota ordaindu eta gero **%90a itzuliko da** ondorengo kasuetan, beti ere **agiri baten bidez frogatuta:**

- **Gaixotasun edo istripua; medikuaren frogagiria behar da.**

- **Behar den txandara joatea eragozten duen ustekabeko edo beharrizan larria. (justifikatuta).**

Kuota ordaindu eta gero aurreko arrazoiengatik ez bada **%80ko erretentzioa izango du.**

Behin udalekuak hasita, ez da dirurik itzuliko.

ANAI-ARREBEN DESKONTUAK:

Familia bereko anai-arreben izen-ematean deskontuak izango dira: matrikulatutako familia bereko bigarrenari, bi matrikularen batez bestekoaren %25 itzuliko zaio. Hirugarrenari, hiru matrikularen batez bestekoaren %50 eta laugarrenetik aurrera doan.

ELKARBIZITZARAKO IRIZPIDEAK:

Hezitzaileek behatzaile izan behar dute. Bai haur eta gazteekin zein hezitzaileen artean. Bizikidetzak oztokatzen duten jarrera edo egoera ez hezitzaileak, hizkera desagokia edo bestelako egoerak identifikatzen direnean, irizpide berdinen arabera jokatu da. Erabaki bat hartzen denean, talde erabakia da.

Zigorrik ez da aplikatuko. Eta gertaera larrien aurrean, taldean (hezitzaile zein haur/gazte) erabakiko dira konponbideak eta zuzendaria izango da azken erabakia aintzat hartuko duena. Bizikidetzak oztokatzen duten jarrerak, aurretik eztabaidatu eta konponbiderik ez badute, haurra etxera bideratuko da.

Bat bateko plan aldaketan aurrean (eguraldia...) erabakiak taldean eta guztion iritzia jaso hartuko ditugu.

Jolasa da gure metodoa: "Jolasa, ekintza askea izateaz gain, ezagutzak oharkabean jasotzeko tresna ezin hobea da". Jarrera positiboak txalotu eta egiten dugunaz gozatuko dugu egonaldietan.

Haur edo gazteak bete beharreko elkarbizitzarako ohituren zerrenda:

- Egongo garen Ikastola/aterpetxe eta inguruak gozatu eta errespetatu: beste haur, familia eta langileen etxea da!
- Lekuan-lekuko Ikastolek/aterpetxeek beren arauak izango dituzte bai ikastolaren erabilerari dagozkionak zein jantokiko erabilerari dagozkionak.
- Ezin da Ikastolatik/aterpetxetik atera begiraleen baimenik gabe.
- Logelak itxita egongo dira egunean zehar. Logeletan ezin da jan ez edan.
- Egonaldian zehar euskara izango da hizkuntza tresna bakarra (ingeleseko udalekuetan, bigarrena).
- Jarduera guztietan parte hartu.
- Pertsonak mintu edo elkarbizitza oztokatu dezaketen hitz, jarrera eta ikurrak ez dira onartuko.
- Gazteen ardura da normaltasun osoz elikatzea, haien higieena zaintzea eta haienak diren gauzen kargu egitea (maleta...).
- Ordutegia eta lagun edota kideen erritmoa errespetatu eta bete behar da.
- Sakelakoak, mp3-ak...eramanez gero hezitzaileek jaso eta ikasleekin adostuko dute erabilerari.
- Ez dute ez dei telefonikorik ezta bisitarik jasoko. Hori bai, nahi beste eskutitz idatzi ahalko dute.
- Udalekuak irauten duen tartean ezingo da droga legalik eta ilegalik kontsumitu.
- Objektu bat topatuz gero, begirale taldeari eman beharko dio.
- Araudia hautsiz gero, ekintzak dakartzkion ondorioak onartu beharko ditu.

KOTXEZ MUGITZEKO BAIMENA:

Matrikulatzearekin batera, ezusteko edo larrialdiren baten aurrean, (medikura eraman beharreko kasuan, adibidez) nire seme-alaba kotxez mugitzeko baimena ematen dut.

DATU PERTSONALEN BABESERAKO EREGELAMENDU OROKORRA

Adostasunaren testua

- o* **Datu pertsonalen tratamenduaren arduraduna:**
- *Arduradunaren Identitatea:* Euskal Herriko Ikastolak EKE
- *Helbide postala:* Errotazar bidea 126, Donostia
- *Tel:* 943445108
- *Helbide elektronikoa:* dblo-lopd@ehi.ikastola.eus
- o* **Tratamenduaren helburua:**

Zure seme-alaben datu pertsonalak, Euskal Herriko Ikastolak EKE -k antolatzen dituen aisialdiko ekintzen kudeaketa burutzeko tratatuko dira, ikasleek aisialdiko jardueretan egingo dituzten ekintzak antolatzeko helburuarekin. Datu horiek beharrezkoak izango dira beraien estantzia modu egoki eta eraginkorrean kudeatzeko eta zerbitzu hobeto bat eskaintzeko.

- o* **Tratamenduaren legitimazioa:**

Datu pertsonalen tratamendurako legitimazioa interesdunaren adostasuna da. Aisialdiko ekintzen kudeaketa aurrera eramateko beharrezkoa izatekotan, osasun datuak eta bestelako datu sentzibleak ere tratatuko dira.

- o* **Tratamenduaren lagapenak:**

Aisialdiko jardueren kudeaketa aurrera eramateko beharrezkoak diren zure seme-alaben datu pertsonalak ondorengo entitateei komunikatuko zaizkie: eskumena duen Administrazio publikoa, bankuak eta Catering zerbitzua, dieta berezien kasuetan, osasun datuak barne.

Datu pertsonalak beharrezkoak diren bitartean soilik gordeko dira, hau da, aisialdiko jarduera burutzen den bitartean, aisialdiko egonaldia burutzeko behar diren eskakizunei erantzuna emateko.

- o* **Interesdunaren eskubideak:**

Zure datu pertsonalei dagokienez, eskubidea duzu konfirmatzeko Euskal Herriko Ikastolak EKE zure datu pertsonalak tratatzen ari den ala ez, baita zehatzak ez diren datuak zuzentzea eskatzeko ere. Horretaz gain, datu horiek ezabatzea eskatu dezakezu, besteak beste, datu horiek jasoak izan zireneko helburua betetzeko jada beharrezkoak ez diren kasuetan.

Edozein eskubide egikaritzeko, Euskal Herriko Ikastolak EKE -en helbide postalera edo helbide elektronikora dblo-lopd@ehi.ikastola.eus idatz dezakezu. Edozein kasutan, zure eskaerarekin zure identitatea ziurtatzen duen NAN kopia erantsi beharko duzu. Adin txikiko datuen kasuan, eskaera haren kudeaketa duenak egin beharko du.

Era berean, eskubidea izango duzu Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren aurrean erreklamazio bat egiteko, batez ere zure eskubideen egikaritzean asetzeari lotu ez duzunean, idatziz eta hurrengo helbide postalera zuzenduta: Jorge Juan kalea, 6, 28001 - Madril, edo bere egoitza elektronikoa bitartez (www.agpd.es).

OHARRA:

Beharrezkoa da dokumentu hau, irizpide orokorrak eta datu pertsonalen babeserako erregelamendu orokorra irakurri ostean, ikaslearen guraso / tutore legalek sinatzea. Egondia honetan izen emateak, ikasleak eta bere guraso edo legezko tutoreek irizpide orokorrak eta datu pertsonalen babeserako erregelamendu orokorra onartzea dakar.

Baimena ematen diot nire seme-alabari Ikastolen Elkartek prestatutako programetan parte hartzeko:

Guraso/tutore 1 (izen-abizenak):

Guraso/tutore 2 (izen-abizenak):

NAN:

NAN:

Sinadura:

Sinadura:

Izen emate orria (eta gaixotasun, alergia edo premia berezirik badu dagokion informea), argazki bat eta transferentziaren ziurtagiria ondorengo helbidera bidali:

EUSKAL HERRIKO IKASTOLAK “EHI” (AISIALDIA)

Errotazar bidea 126, 20018 DONOSTIA

IRUDIEN TRATAMENDUA

Familia agurgarriak:

Dakizuenek, ekintza kulturala egiten den inguruan, euskara eta proiektua sustatzeko ekintzetan zuen seme-alaben irudiak hartzea ohikoa izaten da. Irudi horiek aldizkarian, agendan, edo bestelako argitalpenetan agertzen dira, baita ikastolen elkartearen publizitate liburuxketan edo web orrian ere.

Arreta berezia ipintzen dugu irudi eta argazki horien erabileran eta argitalpenean, eta momentu oro, argazki horietan agertzen diren pertsonen intimitatea errespetatuko da, datuen babeserako indarrean dagoen araudia errespetatuz. Irudi hauek guztiak helburu legitimo eta informatibo baterako erabiliko dira, beti ere Ikastolaren izaerarekin lotuta; horregatik ezingo dira erabili beste helburu desberdin baterako. Beste alde batetik, ez dute irizpide publikokoa izango eta ezingo dira erreproduzitu, transmititu edo erreperazio sistema baten bitartez erregistratu, ukituak direnen adostasunik izan gabe.

Hori guztia kontuan izanik, EUSKAL HERRIKO IKASTOLA, EKE -ren Zuzendaritzatik, datuen babeserako indarrean dagoen araudia aplikatuz, gurasoei edo tutore legalei adostasuna eskatzen zaizue zuen seme-alabak indibidualki edo taldean agertzen diren irudien argitalpenerako, eta horretarako, dokumentu honen amaieran ematen den formularioa bete dezazuen eta dagokion tutoreari itzul diezaziozuen eskatzen dizuegu.

Guraso/tutore legalak garenok adierazten dugu:

1. EUSKAL HERRIKO IKASTOLA, EKE-k gure adostasuna eskatu digula gure seme-alabaren irudi edota ahotsa biltzeko eta erabiltzeko zentroaren promozio helburuetarako.
2. Dokumentu honetan jasotzen den EUSKAL HERRIKO IKASTOLA, EKE-ren eskutik emandako informazioaren berri badugula, eta hori guztiaren onarpena libreki eta borondatez emanez, GURE ADOSTASUN ESPRESUA EMATEN DUGULA, EUSKAL HERRIKO IKASTOLA, EKE-k hurrengo datu pertsonalen tratamendu-eragiketak egin ditzan:

Gure seme-alabaren argazkiak, irudiak edota ahotsa dituzten bideoak jaso eta www.ikastola.eus web orrian, sare sozialetan, blogetan edota ikastolak erabiltzen dituen bestelako aplikazioetan publikatu.

Publikatuak izango diren sare sozialak eta aplikazioak honako hauek dira:

Twitter
Instagram
Facebook
YouTube

Honen onarpenak, sare sozial eta aplikazio bakoitzaren pribatutasun politikak onartzea dakar; azken horien edukia ezagutzeko sare sozial horietara jo beharko da.

GARRANTZI HANDIKO OHARRA: Youtube eta Facebook edo Twitter antzeko sare sozialetan datu pertsonalak publikatzean, IRUDIEN ETA AHOTSAREN NAZIOARTEKO TRANSFERENTZIA gertatuko da, konkretuki, Google, Inc., Facebook, Inc., eta Twitter, Inc.,-en kasuan, AEBn egoitza dutenak, eta EU-US Privacy Shield Akordioaren (679/2016 EB-ko Erregelamenduaren 45.1. artikuluan babestuta) barnean daudenak. Era berean, Flickr-en datuak publikatzean, transferentzia internazionala gertatuko da SmugMug, Inc.-ra, AEBn egoitza duena, kontratuzko klausula tipoen arabera (679/2016 EB-ko Erregelamenduaren 46.2. artikuluan babestuta).

3. Adostasun eman aurretik, EUSKAL HERRIKO IKASTOLA, EKE-k egiten duen gure seme-alabaren irudiaren eta ahotsaren tratamenduaren informazioa irakurri eta ulertu dugula eta, batez ere, jakitun garela gure adostasuna edozein momentutan atzera bota dezakegula, beti ere EUSKAL HERRIKO IKASTOLA, EKE-ri idatziz eskaera eginez.

Sinadurak:

Guraso/tutore 1 (izen-abizenak):

Guraso/tutore 2 (izen-abizenak):

NAN:

NAN:

Sinadura:

Sinadura:

Udalekuetarako KAMISETA eta BISERA nahi?

Kaixo familia!

Lehenik, eskerrak ematea gure udalekuetan matrikulatzeagatik eta gure egitasmoa aintzat hartzeagatik.


Uda honetarako **KAMISETEkin batera BISERA ere** eskuratzeko aukera izango duzue. Zuen seme-alabek udalekuetan jantzi ditzaten (jantzi, erantzi, zikindu, garbitu...).

Kamiseta nahi izanez gero, 12€-tan (BEZ-a barne) eskuratu dezakezue, kamiseta + bisera 20€tan. Erosketa egiteko aukeratu neurria eta kopurua eta izen emate orriarekin batera orri hau ondorengo helbidera bidali (gogoratu ordainagiria ere bidaltzeaz):

EUSKAL HERRIKO IKASTOLAK "EHI" (AISIALDIA)

Errotazar bidea 126, 20018 DONOSTIA

Jakin aukeratutakoa udalekuetan banatuko dela.



Laster arte!

Kamiseta (12€)	Neurria: 8-10 urte	Neurria: 12-14 urte	Neurria: S	Neurria: M	Neurria: L	Neurria: X	
KOPURUA: <input type="text"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	
Kamiseta +bisera (20€)	Neurria: 8-10 urte	Neurria: 12-14 urte	Neurria: S	Neurria: M	Neurria: L	Neurria: XL	+
KOPURUA: <input type="text"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	

Ordainketa egiteko kontu korronteko zenbakia (udalekuaren matrikulazioarekin batera ordainketa bakarrean edo bakoitza bere aldetik egin dezakezu):

KUTXABANK	IBAN:ES35	2095	0114	61	3830351430	BIC:BASKES2BXXX
EUSKADIKO KUTXA	IBAN:ES49	3035	0122	88	1220012930	BIC:CLPEES2MXXX

Gogoratu: ordainagirian haur/gaztearen izen-abizenak eta aukeratutako udalekua derrigorrez adierazi behar dira.